



**URRITXE BHI**  
**KONTINGENTZIA PLANA**  
2020-21 IKASTURTEA



## AURKIBIDEA

1.	SARRERA	2
2.	BABESA	2
3.	ANTOLAKETA	3
3.1	AGERTOKIA: IKASLE GUZTIENTZAKO AURREZ AURREKO JARDUERA	3
3.2	AGERTOKIA: AURREZ AURREKO JARDUERA ETA TELEMATIKOA ALDI BEREAN	4
3.3	AGERTOKIA: KONFINAMENDUA	5
4.	GUNEAK	5
5.	JANTOKIA	8
6.	ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK	9
7.	ATEZAINZA	9
8.	ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO	9
9.	KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO FITXA	12

## 1. SARRERA

Egoera berezi honek hainbat aldaketa sortu ditu:

- Ikasleen sarrera-irteera mailakatua
- Babes pertsonal neurri bereziak
- Higiene neurri berriak
- Egoeraren arabera eszenatoki desberdinak

Honen berri emateko, eta kontingentzia planean ezarrita dauden babes neurri eta jokabide desberdinen berri emateko, ikasturte hasierako lehen astean klaustroa egingo da. Klaustro honetan, COVID-19 buruz LAP informazioa non dagoen ere azalduko da:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-eta-laneko-arriskuen-prebentzioaren-arloko-informazio-orokorra-eta-baliabideak/web01-a2hsprl/eu/>

Mintegi guztietan eskuragarri egongo da Kontingentzia planaren kopia bat, momentu oro, zalantzak izanez gero, nola jokatu jakiteko.

**Ikastetxe osoan, segurtasun distantzia mantendu ezean derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea.**

## 2. BABESA

Atezaintzan egongo dira irakasleentzako maskara kirurgikoak, irakasleei banatzeko. Atezaina bere gelan egon ezean, administrazio bulegotik har dezakete. Atezaina komunetan xaboa eta papera egoteaz ere arduratuko da.

Ikasleek beraien maskarak ekarri behar dituzte, kirurgikoak edo berrerabiltzekoak. Arrazoituta badago ikasleak ezin duela maskara ekarri, ikastetxean emango zaio.

Ikasleak ikastetxean sartzen direnean, lehen saiorako etxetik datozenean edo patio ostean sartzen direnean, atezaina edo beste pertsona bat egongo da atean eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbi ditzaten. Mintegietan gel hidroalkoholkoa egongo da irakasleentzat. Zuzendaritza taldearen bulegoetan, administrazioan eta atezaintzetan ere gela egongo da.

Ikastetxeko sarreretan oinetakoak higienizatzen dituzten alfonbrak kokatuko dira.

Bai irakasleek bai ikasleek nork bere materiala erabiliko dute, ez dute materiala partekatuko. Arau honen barruan ez dira sartzen geletako ordenagailuak, teknologia tailerreko lanabesak, eta ezta informatika geletako ordenagailuak ere. Hau errazteko, geletan, mahaiak banaka kokatuta egongo dira.

**Ikasleak ahalik eta gutxien aldatuko dira gelaz, beharrezkoa denean bakarrik; hau da: aukerako ikasgaia ematen den gelara joateko, informatika gelara joateko edo 4DBH eta Batxilergoan ikasgai espezifikoak ematen diren gelara joateko.**

**Ikasleak parte hartzen duen talde bakoitzean, ikasturte hasieran, kokaleku bat esleituko zaio. Berdin jokatuko da jantokian eta garraioan.** Harreman estuak identifikatzeko, ikasturte hasieran, ikasleei buruzko informazioa hau jasoko da: tutore legalen eta ikaslearen telefonoak, gune eta talde bakoitzeko ikasleen kokapena. **Oso garrantzitsua da kokapenetan aldaketaren bat dagoenean ikastetxeko lan arrisku prebentzioko arduradunari edo zuzendariari esatea.**

Urritxe eraikinean, ikasleak pasabide batetik bestera joatea ekiditeko, igogailua dagoen pasabidea itxiko da.

Klase orduetan bainugela guztiak zabalik egongo dira; saio tarteetan, berriz, itxita. Egunean zehar bainu gelak hiru aldiz garbituko dira eta pasabideak, heldulekuak, armairuak, barandak... gutxienez birritan: lehenengoz, bigarren atsedendialdiaren aurrean; eta bigarrenez, azken saioak amaitu ondoren.

Hauek dira ikastetxean erabiltzen ari garen babes materialak:

- Maskara kirurgikoak
- Babeserako pantaila
- Eskularruak
- Hidro-alkoholdun gela
- Xaboa
- Manparak
- Infragorri termometroak

**Gela guztietan pedala duten zakarrontziak egongo dira.**

### **3. ANTOLAKETA**

Ikasturtea antolatzeko 3 agertoki desberdin aurreikusten dira:

1. Agertokia: Ikasle guztientzako aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera.
2. Agertokia: aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin.
3. Agertokia konfinamendua, irakaskuntza-jarduera telematikoa.

#### **3.1 AGERTOKIA: IKASLE GUZTIENTZAKO AURREZ AURREKO JARDUERA**

Maila bakoitzeko saio kopurua eta saioen iraupena ez da aldatuko, saio bakoitzak 55' iraupena izango du, baina jolastorduak bi txandatan egingo dira, patioan ikasleen pilaketak ekiditeko.

Sarrera-irteera ordutegia honelakoa da:

SARRERA-IRTEERA ORDUTEGIA			
MAILA	SARRERA	ATSEDENALDIA	IRTEERA
1. DBH	8:30	11:15-11:45	14:30
2. DBH	8:30	12:10-12:40	14:30
3. DBH	8:30	12:10-12:40	14:30
4. DBH	8:25	11:15-11:45	14:30
1. BATXILERGOA	8:20	12:10-12:40	15:25
2. BATXILERGOA	8:15	12:10-12:40	15:25

1.DBH: Urritxe eraikineko irakasleen atetik sartuko dira.

2.DBH: Urritxe eraikineko ikasleen eskuineko atetik sartuko dira.

3.DBH: Urritxe eraikineko ikasleen ezkerreko atetik sartuko dira.

4.DBH: Zornotza eraikineko ikasleen atetik sartuko dira, **8:25ean sartzen hasiko dira.**

1.BATXILERGOA: Zornotza eraikineko ikasleen atetik sartuko dira, **8:20ean sartzen hasiko dira.**

2.BATXILERGOA: Zornotza eraikineko ikasleen atetik sartuko dira, **8:15ean sartzen hasiko dira.**

Kasu guztietan, bertan atezaina egongo da konprobatzeko denak dutela maskara jarrita eta gel hidroalkoholikoa emango die eskuak garbitzeko. Sarreran higienizantea den alfonbra egongo da zapata azpiak ere garbitzeko. Atsedenalditik datozenean ere berdin jokatuko dute.

Gela guztietan ikasleak banaka kokatuko dira mahaietan, **eta 1.5m distantzia mantendu ala ez,** maskara jarrita izatea derrigorrezkoa izango da.

### 3.2 AGERTOKIA: AURREZ AURREKO JARDUERA ETA TELEMATIKOA ALDI BEREAN

Ordutegia eta ikastetxera datozen ikasleen baldintzak ez dira aldatuko. Ikasturtea antolatzeko ebazpenean azaltzen den moduan, ikastetxera etortzeko lehentasuna behar gehien dituzten ikasleak izango dira.

Gela guztietan webcam bat egongo da klaseak aldi berean telematikoak eta aurrez-aurrekoak izan daitezten.

Egoera honetan, gela berezi batzuk (laborategiak, teknologia tailerra) ez dira erabiliko, ikasleek ezin baitute etxetik jarraitu gela hauetan egiten den lana.

### 3.3 AGERTOKIA: KONFINAMENDUA

Egoera honetan ikasle eta irakasle guztiek etxetik lan egingo dute. Hainbat plataforma digital erabiliko dira ikasleekin lanean aritzeko:

- Classroom
- Moodle
- Meet
- Gmail
- ...

Ikasleak egin behar duten lana antolatzeko, web gunean, talde bakoitzeko asteko taula jarriko da. Bertan, irakasleek lana, meet saioak edo azterketak idatziko dituzte. Era honetan gurasoek ere ahal izango dute ikusi seme-alabek dituzten lanak.

Etengabeko komunikazioa egongo da tutoreekin eta gurasoekin lanaren jarraipena egiteko, eta baita ikasleek eduki ditzaketen baliabide falta detektatzeko eta erantzuna emateko ere. Komunikaziotarako erabiltzen dugun plataforma Einika da, eta familiaren batek zailtasunak izanez gero, harremana, telefonoz egongo da.

Ikastetxean egin behar diren bilera guztiak bideokonferentzia bitartez egingo dira.

Ikastetxea ez da egongo guztiz itxita, familiei behar duten arreta emateko ordutegi murriztu batean irekita mantenduko dugu: zuzendaritzako kideak, administrariak eta atezainak.

Zein ekintzetarako mantenduko dugu ikastetxea irekita:

- Ikastetxera deitzen duten familia eta erakundeei arreta emateko.
- Etxetik egin ez daitekeen lan administratiboa egiteko.
- Irakasleak material bila etortzeko.
- Familiak seme-alaben materialen bila etortzeko.
- Premiazko mantenu obrak egiteko.
- Garbiketa egiteko.

## 4. GUNEA

### IKASGELAK

Mahiak bananduta kokatuko dira ahalik eta distantzia gehien utzita. Gutxienez birritan aireztatuko dira, atsedendian eta klaseak amaitu ostean. Gelaren bat HAUSPOA proiektuan erabiliko bada, berriro aireztatu beharko da.

Aireztatzen den bakoitzean gelako leihoak eta atea zabalik mantenduko dira gutxienez 20 minutu. Gelako atea zaballik dagoenez, lapurretak ekiditzeko, gelatik irten baino arinago, ikasleek material guztia armairuetan gorde behar dute

Gela guztietan hidrogel likidoa egongo da irakaslea saioa hasten denean eskuak garbi dezan; eta ondorioz, ordenagailua, mandoak eta erabili ditzakeen beste gailuak higienizatuta mantendu daitezten.

DBHko 1., 2. eta 3. mailetako geletan armairuetan gela barruan kokatuta daude, baina batxilergoko eraikinean (DBH 4. maila eta Batxilergoko 1. eta 2. mailak) armairuak pasabidean kokatuta daude; hori dela eta, ikasleak pasabideetatik ahalik eta gutxien ibil daitezten 1. saioan atsedendira arteko materiala hartuko dute, eta berdin jokatuko dute jolastordu ostean.

**Azken saioan, garbi lana errazteko, material guztia armairuetan gordeta utziko da. Gelan sartzen den azken irakasleak izango du honen ardura.**

## IRAKASLE GELA

Irakasle gela bakoitzean gel hidroalkoholilko botila egongo da. Irakasle geletan denen arteko hainbat baliabide dago: fotokopiagailua, ordenagailua, grapagailua... Irakasle gelako partekatzen den edozein baliabide erabili aurretik eskuak gelarekin garbitu behar dira.

## BAINUGELAK

Bainugelak itxita mantenduko dira ikasleen sarrera-irteera orduetan, atsedendian eta bazkaltzeko orduan, baina irekita egongo dira beste momentuetan. Ikasleak komunera joan behar duenean baimena eskatuko dio irakasleari. Bazkaltzeko orduan, atea irekitzeko irakasle arduradunari edo atezainari eskatuko diote.

Gutxienez hiru aldiz garbituko dira: goiz erdian, atsedendian ostean eta klase-jarduerak amaitu ostean.

## PATIOA

Ikastetxearen patioa handia da, 5800m<sup>2</sup> ditu, hainbat gune desberdinetan banatuta dago: saskibaloi zelaia, futbol zelaia, frontoia, ping-pong gunea eta zelai zabalak. Atsedendian bakoitzean bi maila egongo dira, 150 ikasle gehienez; horregatik, ez da taldekatuko gune desberdinen erabilera; hori bai, legeak dioenez ezin dira 10 ikasle baino gehiagoko taldeak sortu.



Atsedendian, jolas desberdinak ateratzen ziren betiko jokoei, futbol eta saskibaloia, alternatiba emateko. Aurten ez dira aterako, eta ez dira utziko saskibaloia eta futbol baloia ezta ping-pong pilotak ere.

**Ikasleak lehenengo txirrinarekin hasiko dira ikastetxean sartzen, horretarako aurretik erabili duten sarrera berdina erabiliko dute. Zornotza eraikinean atezaina egongo da gela banatzeko, Urritxe eraikinean atezaina eta Urritxe eraikinaren zaintza duen irakaslea.**

## LIBURUTEGIA

Liburutegian egon daitekeen ikasle kopurua edukiaren erdira murriztuko da: 28 ikasle mahaietan, 8 ikasle ordenagailuetan eta 3 ikasle butaketan. Liburutegian, beste geletan bezala, hidrogel botila egongo da eta ikasleak sartzekoan eskuak garbitu behar dituzte.

Liburutegira doazen ikasleek eskuak garbitzen dutenaren ardura beraiekin doan irakaslearena izango da. Atsedendietan, zaintzako irakaslearena izango da ardura hori.

## LUDOTEKA

Ezin da bermatu ludotekako materiala era egokian higienizatuko dela; horregatik, 20-21 ikasturtean ez da zerbitzu hau eskainiko.

## INFORMATIKA GELAK

Informatika geletan hidrogel botila bat egongo da. Ikasleak sartzekoan eskuak higienizatu beharko dituzte; horretarako, irakaslea atean egongo da, eta ikasleek eskuak higienizatzen dituztela ziurtatuko du.

Gutxienez birritan higienizatuko dira gela eta ordenagailuak, bata goiz erdian eta bestea saio lektiboak bukatu ostean.

## TEKNOLOGIA TAILERRA

Teknologia gelan hidrogel botila bat egongo da. Ikasleak sartzekoan eskuak higienizatu behar dituzte; horretarako, irakaslea atean egongo da, eta ikasleek eskuak higienizatzen dituztela ziurtatuko du.

Gela gutxienez bi bider higienizatuko da, bata goiz erdian eta bestea saio lektiboak bukatu ostean.



## PLASTIKA GELA

Gelak ez du edukiera nahikorik talde arruntetako ikasleak distantzia minimo batera kokatzeko; hori dela eta, Plastika mintegiak talde txikietako ikasleak baino ez direla joango erabaki du; adibidez, Irudi Artistikoa tailerra aukeratu dutenak edo 3. mailako Dibertsifikazio taldea.

Gelan hidrogel botila bat egongo da. Ikasleak sartzeraoan eskuak higienizatu behar dituzte; horretarako, irakaslea atean egongo da, eta ikasleek eskuak higienizatzen dituztela ziurtatuko du.

## GIMNASIOA

Heziketa Fisiko ikasgaiaren saioak berdin mantenduko dira, 2 ordu maila eta talde bakoitzean 1DBHtik 1 Batxilergora. Bi aldagela daude, neskena eta mutilena, eta bi txanda antolatuko dira saio bakoitzean soinketa egin eta gero ikasleak alda daitezten.

**LAPZ kontingentzia planak eta abuztuaren 28an argitaratu zen jarduketa-protokolo osagarriak dioen moduan, HF saioetan ikasleak bakarka arituko dira, maskara jarrita eta distantzia mantenduz.**

## MUSIKA GELA

Musika gelak duen tamaina dela eta musika saioak gelan bertan egitea hobetzen da.

**LAPZ kontingentzia planak eta abuztuaren 28an argitaratu zen jarduketa-protokolo osagarriak dioen moduan, musika saioetan ikasleak bakarka arituko dira.**

## LABORATEGIAK

Laborategi bakoitzean hidrogel botila bat egongo da. Ikasleak sartzeraoan eskuak higienizatu behar dituzte; horretarako, irakaslea atean egongo da, eta ikasleek eskuak higienizatzen dituztela ziurtatuko du.

Laborategia, gutxienez birritan higienizatuko da, bata goiz erdian eta bestea saio lektiboak bukatu ostean.

## COVID-19 ISOLAMENDU GELA

Idazkaritza ondoan dagoen bisita gela isolamendu gela izango da. Sintoma susmagarriak dituzten ikasleak gela horretan egongo dira, zaintzako irakaslearekin, gurasoak bila etorri arte. Ondoren, gela desinfektatuko da.

## 5. JANTOKIA

Jantokian bi txanda egongo dira:

1. 14:30-15:00 (Garraiokoek lehentasuna izango dute)

## 2. 15:00-15:30

Lehenengo txandan lehentasuna emango zaie garraioko ikasleei. Jantokia 90 ikasleentzak prestatuta dago. Iazko jantokiko ikasleen kopurua kontutan izanda, ez da arazorik aurreikusten txanda bakoitzeko ikasleak distantzia egokira kokatzeko. Txanda bakoitzaren ostean mahaiaik eta aulkiak higienizatuko dira.

## 6. ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK

Administrazio bulegoan 2 administrari laguntzaile daude, bakoitza bere mahaian, 2mko distantzia mantenduz. Administrari laguntzaile bakoitzak bere ordenagailua eta bulego materiala du; beraz, ez dute ezer partekatu behar.

Administrazio bulegoan gel hidroalkoholiko botila bat dago, eskuak maiz garbitu ahal izateko, eta leihatiletan metakrilatozko manparak kokatu dira.

Administrari laguntzailea ez den beste edozeinek maskara jarrita eduki behar du bulegoan sartzean.

## 7. ATEZAINNTZA

Ikastetxean bi eraikin daude eta bi atezaintza, bata Urritxe eraikinean eta bestea Zornotza eraikinean.

Urritxe eraikineko atezaintzan, eraikineko sarrera nagusian kokatuta dagoen bulego bat da. Leihatila du ikasleei eta irakasleei arreta emateko, eta leihatila horretan manpara kokatu da atezaina babesteko. Urritxe eraikinean bi fotokopiagailu daude, bata irakasle gelan eta bestea atezaintzan. Atezaintzako fotokopiagailua erabili ahalko duten bakarrak: atezainak, administrazioko langileak eta zuzendaritza taldekoek; irakasleek irakasle gelako fotokopiagailua erabiliko dute, eskuak hidrogelarekin garbitu ondoren.

Zornotza eraikineko atezaintza irakasle gelako sarreran kokatuta dagoen lanpostu bat da. Manpara bat kokatu da ikasleei arreta egiterakoan babesa emateko. Fotokopiagailu bakarra dago eraikin horretan eta irakasle askok erabiliko dute; horregatik, fotokopiagailua erabili aurretik eskuak hidrogelarekin garbitu behar dira. Botila bat egongo da atezainaren mahaian, eta beste bat irakasle gelako mahaian.

## 8. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

**1. Ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak**, ikasle, irakasle zein bestelako langileak izan, ezta ere COVID-19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta edo etxeko berrogeialdian daudenak COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik.

## **2. Ikastetxean sintomatologia agertuz gero:**

IKASTETXEAN COVID-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurrez aurreikusitako jarduketa-protokolo bat jarraituko dute:

- a. Horretarako prestatutako isolamendu-gela batera joango dira (maskara jarrita). Gela honek higie-ne eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- b. Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta maskara.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo ikastetxean Covid 19ren prebentzioaren ardura duen pertsona familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
- e. Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, isolamenduan jarriko da (maskara jantzita) eta etxera joango da IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinarazi ondoren; zuzendaritzak Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- f. Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailekoei jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.
- g. Eragindako pertsona **kasu susmagarritzat** joko da, eta **etxean isolatuta egon** beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan adierazitakoaren arabera.
- h. **Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higie-ne-neurriak zorrotzuz**. Kasua berresten bada, **kontaktuak azterketa egingo da** hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera **identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena** eginez.

## **3. Kasuak baieztatuz gero:**

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da.

Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa ikastetxearekin koordinatuko da ikastetxeko zuzendaritzarekin eta COVID 19rekin lotutako alderdien erreferentziatzko arduradunarekin.

Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, ikastetxeko Zuzendaritza erreferentziako ESI ko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da.

Kasua baieztatzen bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza ingurunean eta handik kanpo, kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.

Ikastetxean harreman estuak identifikatzeko honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- A) Baieztatutako kasua bizikidetza-talde egonkor batekoa bada, harreman estutat hartuko dira taldeko kide diren pertsona guztiak.
- B) Konfirmatutako kasua ez bada bizikidetza-talde egonkor batekoa, ikastetxeko harreman estuak identifikatuko dira, ikastetxeko Zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan.

Zentroan lan egiten duten langileen esposizioaren balorazioa kasu bakoitzaren arriskuaren ebaluazio espezifikokoaren arabera egingo da, SARS-CoV-2 ekiko esposizioaren aurrean Laneko Arriskuen Prebentzio zerbitzuetarako Jarduketa prozeduran jasotakoaren arabera; beraz, arrisku kontaktuz hartzeak prebentzio neurrien jarraipen zuzena eta babes elementuen erabilera baloratuko ditu (distantzia fisikoaren mantentzea eta maskara erabiltzea).

Osasun Publikoko Zerbitzuak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin batera, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko langileak kasu baieztatuaren kontaktu estuzat hartu behar diren, hartutako prebentzio neurrien eta egindako jardueren egokitasunean eta jarraipenean oinarrituta.

Osasun agintariek jarraipen aktiboa egingo dute estuzat identifikatutako kontaktuen artean, eta etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Sailaren COVID 19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan zehazten denaren arabera. PCR probak egitea barne hartuko da, Osasun Publikoko agintariek ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.

Gurasoei informazio oharra prestatuko zaizkie, eta familiei informazio egokia emango zaie berrogeialdiko, eskuen higi eneko eta arnas higieneko neurriak betetzeko, bai eta COVID 19rekin bateragarriak diren sintomak garaiz identifikatzeko seinaleak ere.

Kontuan hartu beharreko aldia aurreko paragrafoan aipatutako Protokoloan jasotakoa izango da.

Kontaktuak aztertu eta estuzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza jarduerak normaltasunez jarraituko dute, arreta neurriak zorrotz eta zaintza pasiboa eginez.

Beste kasuren bat balego beste gela batean, ikastetxean, Osasun Publikoko jarraibideak bete. Kasuak erlazionatuta egon daitezke, edo ez, eta detektatutako kasuen kontaktu estuen azterketaren arabera zehaztuko dira neurriak.

Eskola aldian, COVID 19 kasuak detektatuko dira ikastetxe batera joaten diren haurren artean Horrek ez du esan nahi, nahitaez, kutsatzea ikastetxean gertatu denik. Horretarako, eskolaz kanpoko ingurunea sartuko da analisisian, ikastetxeko kontaktu estuak ikertzeko beharraz gain.

#### 4. Kasu bat baino gehiago agertuz gero

Agerraldizat hartuko da lotura epidemiologiko ba t ezarri den infekzio aktiboko 3 kasu edo gehiagoren multzokatzea.

Ikastetxeetan COVID 19 kasuen agerpen egoerak askotarikoak izan daitezke. Agertzen diren kasuak bizikidetza talde egonkor edo ikasgela bakar batean identifika daitezke, talde horretan edo gelan transmisiorik izan gabe. Kasu desberdinen arteko lotura dagoenean, agerraldizat har daiteke.

Era berean, agerraldi bat antzeman daiteke kasu batetik abiatuta bizikidetza egonkorreko taldean edo ikasgelan transmisioa sor tu zen talde batean; egoera hori beste talde batzuetan ere gerta daiteke, haien artean loturarik egon gabe eta gertaera independenteak izanik. Azkenik, ikastetxean bertan elkarbizitza taldeen edo gelen arteko transmisio agerraldiak gerta daitezke.

Hiru agertoki posible har daitezke kontuan:

**a. Agerraldi kontrolatuak edo noizbehinkako kasuak.** Transmisio-kateak ondo definituta badaude.

Egoera hau talde bakar batean gerta daiteke, edo, aldi berean, independenteak diren bizikidetza-talde egonkor batzuetan. Horietako bakoitzerako kontrol-jarduera espezifikoak adieraziko dira, ohiko kontrol-neurriak ezarriz: kasuen isolamendua eta talde edo gela independente bakoitzeko kontaktuen identifikazioa eta berrogeialdia.

**b. Agerraldi konplexuak edo noizbehinkako komunitate-transmisioa.** Transmisio-kateak erraz identifikatu ezin badira edo adar bat baino gehiago agertzen badira, kasu bat baino gehiagoren sorrerarekin.

Egoera hori hainbat talde edo ikasgelatan hautemandako kasuen ondorio da, talde batetik bestera nolabaiteko transmisio-maila dutenak, birusa ikastetxean sartzeko modua edozein izanik ere. Kasu horretan, kasuen arteko lotura aztertuko da, eta neurri gehigarriak hartzea baloratuko da, hala nola berrogeialdia gorde behar duen taldea/taldeak handitzea, gelak edo lerroak ixtea.

**c. Kontrolik gabeko transmisio komunitarioa.** Ikastetxean kontrolatu gabeko transmisioa gertatzen dela uste bada, kasu kopuru altua agertuta.

Osasun Publikoko Zerbitzuak arrisku-ebaluazio bat egingo du, transmisio-prozesuak non gertatzen diren aztertuz, neurriak eskalatzeko beharra aztertuz, eta, azken buruan, zentroko eremu bat (adibidez, jantokia) edo ikastetxe osoa aldi baterako ixtea baloratuko du.

Egoera epidemiologiko horiek bizikidetza-talde egonkor batean edo gehiagotan gerta daitezke, lerro batekoak edo gehiagotakoak. Agerraldi horiek kontrolatzeko neurriak, aurrez definitutako agerraldi motak zehaztu duen arrisku-mailaren arabera ezarriko dira.

## 9. KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO FITXA

PERTSONAK / TAREAK	IZENA	EMAILA	TELF
<b>SPRL</b>			
<i>Medikua-Erizaina</i>	Jon Ander Irusta	prebentziohezkuntza@euskadi.eus	944031195
<i>Tekikaria</i>	Jose Ramón Apella	prebentziohezkuntza@euskadi.eus	944031192
<b>BALIABIDEMATERIALAK</b>			
<i>Ikuskaria</i>	Irene Larrinaga	huisib03@euskadi.eus	944031971
<i>Osasun etxea</i>			
<i>Gizarte zerbitzuak</i>	Eztizen Cubero	<a href="mailto:ecubero@amorebieta.eus">ecubero@amorebieta.eus</a>	946300190
<i>Udala</i>			
<i>IGE - Familiak</i>	Maria Victoria Ereño	<a href="mailto:igeurritxeamore@gmail.com">igeurritxeamore@gmail.com</a>	649347297
<b>LAGUNTZA ETA JARRAIPEN BATZORDEA- KRISI-TALDEAK</b>			
Zuzendaria	Iraide Astorkia	<a href="mailto:zuzendari@urritxe.eus">zuzendari@urritxe.eus</a>	
Arrisku prebentzio ard.	Esther Vallejo	<a href="mailto:evallejo@urritxe.eus">evallejo@urritxe.eus</a>	
Gurasoa			
OOG kidea	Amaia Estankona	<a href="mailto:amaiaestankona@gmail.com">amaiaestankona@gmail.com</a>	620824353
Berritzeguneko erref.	Eskarne Rementeria	<a href="mailto:eskarne@bgune09.com">eskarne@bgune09.com</a>	946550579



*Zuzendaria Segurtasun laguntzailea Aita /ama edo OOG Berritzegune BESTELAKOAK...*